

MUGARRIAK

Mugarriak era bitakoak dira. Batzuk, baserrien arteko lurrak banatzeko sartzen diranak; eta besteak, errien arteko mugak izentatzekoak.

Baserri arteko mugarriak, ikatz eta teilla-zatiak eukitzen ditu bere azpian. Bere etxeko jabearen ezaugarriak. Erriarenak, ostera ez dauke olako ezer.

Len, Sanmarkosetan, erregatibak egiten ziran bitartean, erriko mugak ikusteko oiturea zan. Esan bearra dago, olango mugarri asko, antxiñako jentil-arri ertzetan eta bide kurutzeetan eregita ikusten dirala.

Mugarriak aldatzea, oso txarto ikusia zan euskaldunen artean, eta pekatu astuntzat artua.

Ataun aldean esaten da, napar-artzain batek Irumugaeta´ko mugarria bere lekutik aldatu egin ebala. Eta ilda gero, gabero gabero, bazterretan oiuka ei ebillan:

—Irumugaeta´ko mugarria, nire animaren galgarria. Non sartu, non sartu?

—Sartu egik (egizu), lengo lekuan —erantzun ei eutsan beste artzain batek.

Eta ez ei zan geiago ildakoaren txitik entzun.

Irakurlea: Gemma Palmas - Larriño Auzoa, Aretxabaleta